

3



INTEGRAZIOA ETA ANIZTASUNA NOLA UZTARTU: Hiritartasun kulturantzunaren erronka EBn

Marco Martiniello

txostenak

ikuspegi.





Integrazioa eta aniztasuna nola uztartu: Hiritartasun kulturanziztunaren erronka EBn

Marco Martiniello



Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Marco Martiniello

Soziologian lizentziatua Liejako Unibertsitatean (Belgika) eta Zientzia Politikoetan doktore Florentziako Unibertsitate Europarrean (Italia). Ikerketa Zientifikorako Belgikako Funts Nazionaleko (FNRS) zuzendaria da, eta Soziologia eta Zientzia Politikoa irakasten ditu Liejako Unibertsitatean. Halaber, Migrazio, Integrazio eta Gizarte Kohesioko Europako Bikaintasun Sareko (IMISCOE) zuzendaritza-batzordeko kide da, eta *Ethnic and Racial Studies* aldizkariko argitalpen-batzordean dago. Horrez gain, Migrazioen Soziologia aztertzen duen Nazioarteko Soziologia Elkarteko ikerketa-batzordeko zuzendariordea da.

Goizane Mota

Soziologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean, eta *Migrazioak eta Gatazka Gizarte Globalean* Europako Programako doktoregaia da. Irakasle izandakoa da, eta gizarteratze-arloko kudeaketa-politikak diseinatzeko pres-takuntza akademikoa eta profesionala ditu. Atzerrian ikerketa-lanetan aritutakoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigrazio zuzendari izandakoa da. Munduko Landagune Elkartean ere jardun du lanean.

Jatorrizko Izenburua:	How to combine Integration and Diversities: The Challenge of an EU multicultural citizenship
Itzulpena:	Bakun S.L.
Argitaraldia:	2007ko azaroa
Ale-kopurua:	500 ale
Argitaratzailea:	Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Fotokonposizioa:	Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Inprimatzea:	ITXAROPENA, S.A. Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
ISBN:	978-84-8373-987-7
Lege-gordailua:	BI-2423-07

	Orr.
1. Testuingurua: aniztasunaren dibertsifikazioa EBn	4
2. Gaia: integrazioa eta aniztasunak EBn	6
3. Aniztasuna kudeatzeko eredu europarra behar al dugu?	7
4. Europako Batasuneko hiritartasun kulturantzunerantz	9
4.1. Kulturantzitasuna eta gizarte-justizia	9
4.2. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak	9
4.3. Aniztasuna sinbolikoki aitortzea	11
4.4. Integrazioa, aniztasuna eta politika publikoak	12
4.5. Parte-hartze eta ordezkartza politikoak	14
5. Ondorioa	16
Elkarrizketa: Marco Martiniello ezagutzea	17
Hausnartzeko	20

1. TESTUINGURUA: ANIZTASUNAREN DIBERTSIFIKAZIOA EBN

Beste edozein gizartetan bezala, Europako Batasunean, kidetze eta identitate etniko-kultural eta nazional ugari dago. Aniztasun hori ez da galduko globalizazioaren ondorioz. Egia da masa-kulturen "uniformizazioa" ukatu ezin dugun joera dela. Baina, aldi berean, alor publikoan, hainbat identitate kultural, etniko, erlijiozko eta posnazional mota daude, eta "uniformizazio" joerari erantzuteko berre-raiki dira horiek.

1995ean argitaratutako liburu batean, Estatu Batuen testuinguruaren barruan, David Hollinger historialari amerikarrak "aniztasunaren dibertsifikazioa" adierazpena erabili zuen kulturen eta identitateen dinamika deskribatzeko. Analogiaz, Europako Batasuna ere aniztasunaren dibertsifikazio-prozesu batean sartu dela esan genezake, eredu jakin bati jarraituz eta aniztasun europarren formari buruzko edo europar aniztasunei berei buruzko eztabaida europar jakin bat sortuz.

Europako Batasunean, dibertsifikazioaren aniztasunak hainbat jatorri ditu. Hasteko, 2004ko maiatzetik, 25 estatuk osatzen dute Europako Batasuna; estatu horietako bakoitza eraikuntza nazionalen historia jakin bati eta identitate nazional zehatz batzuei lotuta dago. Estatu horiek asko dute komunean, baina, hizkuntzari, sistema politikoari, lege-sistemari eta abarri dagokionez, beren berariazotasuna edo espezifikotasuna defendatzen dute. Bihar, handitze-prozesuak EBren barruan dauden identitate nazionalen aniztasuna areagotuko du. EBean sartu nahi dutela argi dute herrialde atxikigai berriek, baina ez dute proiektu europarrak berak asimilatzea nahi eta besteengandik bereizten dituzten ezaugarriak zeharo galtzea. Hala, EBren hurrengo handitzeak, identitate nazionalen dagokionez, EBren aniztasuna areagotuko du berriz ere.

Bigarrenaz, Europako Batasuneko hainbat estatutan, sartu berri diren estatuetan eta sartzeko zain dauden herrialde atxikigaietan, zenbait mobilizazio politiko azpinazionalak identitate etniko-erregionalak sustatzen dituzte eta, aldi berean, talde jakin batzuek gutxiengo nazional gisa, talde etniko gisa edota batzuetan haien independentzia aitortzea eskatzen dute. Espainian, euskaldunen edota katalanen kasuak aipa genitzake; korsikarren eta bretoien kasuak Frantzia; Belgikako zatiketa etnolinguistiko historikoa edo Italiako Iparraldeko Ligaren igoera, non bere programaren barruan sartzeko baitu Padaniako nazioa eraikitzea eta Italiatik bereizitako estatua. Bai Erdialdeko Europan, bai Ekialdekoan, gutxiengo nazionalen gaiak oraindik gutxi dira. Kasu horietan guztietan, gutxiengoaren historia jakinetan, haien hizkuntzan edota beste ezaugarri kulturetan oinarritzen diren kulturak eta identitateak aitortzearen eta babestearen aldarrikapenak planteatzen dira. Batzuetan, honako hauek izaten dira dinamika horien emaitza: federazioa, erregionalizazioa, gutxiengo nazionalen eskubide kulturalak bermatzea edo gutxi gorabehera adierazitako asimilazio-politikak ezartzea.

Hirugarrenez, Europako Batasuna immigrazioaren lurraldea da eta izango da. Migrazio-eredu berriei jarraituz mugitzen dira mundu osoko etorkinak. Batzuk ezarri eta kulturalki egokituko dira ingurune berrira, aldi berean bertako kultura eta identitate etniko-kulturalen aniztasuna aberastuz. Besteek lotura eta jarduera transnazionalak mantenduko dituzte. Esan daiteke egun Europako Batasunak mundu osoa irudikatzen duela. Hori, argi eta garbi, datu estrukturala da, immigrazioak jarraitu egingo baitu eta agian legalki berriz antolatuko baita lehenago edo geroago, bai Europako Batasunaren mailan, bai maila nazionalen. Europako hirietako etorkinen taldeak eta jatorri immigratzailea dutenenak, dudarik gabe, hazi egingo dira etorkizunean. Ondorioz, Europako Batasuneko gizartean beste bizitza-ereduak, beste erlijioak, mundua bestela ikusteko erak eta bestelako kulturak sartuko dira etengabe, modu lasaian edo ez horren lasaian.

Laugarrenez, munduko beste lekuekin alderatuz gero, gutxiengo indigenak eta esklabotasunaren ondorena (afroamerikarrena bezalakoa) ez dira horren garrantzitsuak Europako Batasunean. Baina, dudarik gabe, ijitoen arazoa askoz premiazkoagoa da. Europako Batasuneko estatu askotan daude talde horiek. Estatu horietan guztietan, arrazakeria eta diskriminazioa jasaten dute, baina, aldi berean, haien

kultura txalotu egiten da, esate baterako, haien musika. Haien egoera bakarra da, migrazioari buruzko eta gutxiengo nazionaleri buruzko eztabaidetan haietaz ahazten direlako.

Bosgarrenez, garrantzi-maila ezberdina duten hainbat komunitate judu daude Europako Batasunaren barruan, eta haien identitatea eztabaidarako objektua izan ohi da bai komunitatearen barruan, bai kanpoan. Gainera, Ekialde Hurbileko egoerak eragin argia du Europako Batasunean. Ondorioz, antisemitismoa geldiarazi beharreko kontua da.

Nazio-, kultura- eta etnia-difertsifikazioaz haratago, Europako Batasuna beste hainbat modutara ere dibertsifikatuta dago. Izan ere, Europak oinarrizko arazo bati aurre egiten dio, edo arazo hori pairatzen dutenek, behintzat; hau da, estatuen arteko, estatu bakoitzaren lurraldeen eta hirien arteko eta norbanakoen eta taldeen arteko ezberdintasun sozial, ekonomiko eta politikoa. Hainbat arazoren ondorioz -hala nola langabeziaren gorakada, etxebizitzaren eskasia, eskala txikiko hiri-krimena eta desagertuta zeuden hainbat gaixotasun azaltzea-, gabezia ekonomiko, sozial eta politikoa areagotzen ari da Europako hiri askotan. Dirudienez, aldi berean gertatzen diren bi prozesu daude.

Lehenengo, kanporatze- edo eskusio- eta inklusio-prozesuak gizarte nagusitik kanpo agertzen diren gizarteak sortzearen erantzuleak dira. Moralista kontserbadoreek "beheko maila iraunkor" horren faktore (kulturalak, mentalak eta abar) bereizgarriak nabarmentzen dituzte. Pentsatzaile aurrerakoiek nahiago dute nabarmentzea baztertutako pseudohiritarren maila osatzen duten prozesu makroekonomikoak eta sozialak.

Bigarrenez, gizarte nagusiaren barruan ere, desberdintasun-eredu berriak ikus daitezke. Kapitalismo globalak klaseen egitura aldatu du malgutasunaren, lanpostu ezegonkorren, gaizki ordaindutako lanpostuen eta abarren bidez. EBko hiritar guztiak ez daude "in": ezberdintasun handia dago enpresa handi bateko zuzendaritza-batzordeko kide baten eta jatetxe bateko langile baten artean, nahiz eta biak "barruan" daudenen artekoak izan, hau da, nahiz eta kanporatuen kontrako mailakoak izan. Argi eta garbi, desberdintasun eta desoreka forma horiek EBko aniztasunaren beste dimentsio batzuk osatzen dituzte, eta beharrezkoa da horiek aniztasun etniko-kulturalarekin lotzea.

Aniztasun ekonomikoaz eta sozialaz gain, aniztasun politikoa ere aipa daiteke, orientazio sexualari dagokion aniztasuna, aniztasunaren generoaren dimentsioa eta edozein gizarte konplexu osatzen duen beste hainbat aniztasunen jatorria.

2. GAIA: INTEGRAZIOA ETA ANIZTASUNAK EBN

Beste edozein gizartetan bezala, Europako Batasuna gizarte kulturantzuna da; kulturalki dibertsifikatuta dagoen gizartea da, eta, barruan, talde ugari bizi dira elkarrekin. EBko estatu guztien garapen soziologikoak monokulturaren mitoa ukatzen du egunero.

EBren joera soziologikoak kontuz aztertu ondoren egindako baieztapen hori besterik gabe onartzea ez da ona. Halaber, ez da nahikoa sozialki, ekonomikoki eta politikoki EB desberdina dela onartzea. Egokiagoa da kontuan hartzea kulturari eta identitateari eta desberdintasun sozialen, ekonomikoen eta politikoen desberdintasuna eraikitze-prozesuei dagokienez, aniztasunaren dibertsifikazioa hainbat modutara lotuta dagoela.

Lehenengo, kontuan izan behar genuke europar gizarte gehienak bi mitoetan oinarrituz eraiki zirela; horixe besterik ez dira, mitoak. Ez dira dinamika sozialen deskribapen errealak. Batetik, monokulturaren eta nazio-eraikuntzaren prozesu baten homogeneousazioaren mitoa dugu eta, bestetik, berdintasunean oinarritutako gizarte baten mitoa, non hiritartasuna partekatzen baita, eta eskubideak eta betebeharrak guztien eskura baitaude.

Bigarrenez, desberdintasun ekonomiko, soziala eta politikoa eta dibertsifikazio nazionala modu konplexu askotara gainjartzen dira. Europako Batasunean, identitate etniko-kultural eta fededun guztiek ez dute onarpen sozial eta politiko bera. Identitate horietako batzuk legezkoak dira eta beste batzuk ez. Adibidez, orain, irailaren 11ren aurretik baino gehiago, identitate musulmanek beldurra sortzeaz gain, identitate mota horren legezkoetasuna zalantzan jartzen da EBren barruan. Musulmana eta europarra izatea ez da aho batez normaltzat jotzen, nahiz eta Europako herrialde askotan musulman europarren kopurua hazten ari den -edota hazten ari delako agian-. Identitate ez-legezkoetako norbanakoak errazago kanporatzen dira lan-mundutik, diskriminazio etnikoaren, arraza-diskriminazioaren edo erlijio-diskriminazioaren bidez, eta horrek, aldi berean, haien berariazko identitatea indartzen du. Beste era batera esanda, EBren testuinguruan identitatea legezkorik ez dutenak maila sozial eta ekonomikorik okerreanean daude. Identitatea babesteko lekuak indartu ditzake horrek, bai gehiengo taldeentzat, baita gutxiengo taldeentzat ere, eta, halaber, mundu sozial ezberdinak sor ditzake; mundu sozial ezberdin horien artean, gatazka etnikoek edota elkarrekiko ezjakintasunak erraz hartzen dute elkarrizketaren lekua. Horrek, noski, kalte egiten dio integrazio sozialari.

Ondorioz, Europako gizarte dibertsifikatu horietan, estatuen arteko harremanak, nazioz gaindiko erakundeak eta gero eta dibertsifikatuagoa den populazioak demokraziaren sendotzearen inguruko hausnarketa egitea eskatzen dute: berariazko kultura mantentzeko eskatzeak eta identitatea aldarrikatzeak zein erantzun politiko dute? Kulturantzatasunaren kudeaketan, nola har dezakete parte Europako Batasunak eta estatuak? Nola erabil dezake Europako Batasunak gero eta gizarte kulturantzunagoa, erlijio aniztunagoa eta multietnikoagoa? Eta, aldi berean, nola berrets ditzake bere eskakizun demokratikoak, eta nola egin diezaike aurre desberdintasunari, gizarte-kanporatzeari eta kanporatze ekonomikoiari? Hirugarren milurtekoaren hasieran, arazoa ez da gizarte europar kulturantzuna eraikitzearen edo kulturalki homogeneousoa den gizarte bat eraikitzearen artean aukeratzea. Hori bai, gizarte orok, Europako Batasunak barne, aurre egin behar dio bere biztanleriara eta bere historiara egokituko den kulturantzatasun mota bat diseinatzearen erronkari; alde batetik, kulturantzatasunaren dagoen aniztasunarekin gatazkarik ez sortzeko eta, bestetik, beharrezko kohesio sozialarekin, ekonomikoarekin eta politikoarekin ere gatazkarik ez sortzeko. Beste era batera esanda, nola uztar dezake Europako Batasunak gero eta gizarte batuago eta integratuago bat bilatzea, kulturantzatasunaren balioespenarekin eta berdintasun sozial eta ekonomiko handiagoa babestearekin? Horixe da hiritartasun kulturantzatasunaren erronka Europako Batasunean.

3. ANIZTASUNA KUDEATZEKO EREDU EUROPARRA BEHAR AL DUGU?

Hiritartasunarekin eta kulturantzarekin zerikusia duten gaiak ohiko bilakatu dira Europako akademikoen diskurtsoen artean, eta horren erakusgarri dira galdera konplexu baten edo besteren inguruan ematen diren hitzaldiak eta argitaratzen diren artikulua eta liburu kopurua. Orain dela denbora gutxi, hainbat ikuspuntutatik eztabaidatu da kulturantzaz: gizarte posnazional baten proiektua gisa, estatu-nazio eredu baten alternatiba gisa, ideologia gisa, politikoki zuzena den arrazakeriaren bertsio berri gisa, iraganean eta orainaldian, gutxiengo etnikoen diskriminazioaren aurka borrokatzeko estatu-politiken multzo gisa, gutxiengo etnikoetako liderren mugikortasun sozialerako baliabide gisa, adierazpen kultural gisa eta estatu modernoaren kulturantzaz eta identitate-aniztasuna kontuan hartzen duen mobilizazio politiko gisa. Haren defendatzaileentzat, kulturantzaz da "balkanizazioari" eta estatu modernoaren zatiketa etniko-kulturalari aurre egiteko dagoen bide bakarra, estatu baten mugen barruan bizi diren talde guztiak nolabait ere onartu egiten baititu partekatzen dituzten erakunde politikoaren barruan. Bestalde, horren aurkakoek diote kulturantzazak gizartearen zatiketa areagotuko duela eta apartheid mota bat sortuko duela. Beste argudio batzuen arabera, berriz, kulturantzazak gure gizarteak dituen benetako arazoak ez ditu behar bezala jorratzen, esate baterako, desberdintasun sozio-ekonomikoa, eta, argumentu horien arabera, desberdintasun hori sortu egiten dute. Edozein kasutan ere, adierazle demografikoek azaltzen duten gizarte kulturantzazean bizi garela baino gehiago esan nahi du kulturantzazak.

Oro har, badirudi ingurune akademikoan ikuspegi liberalak gailentzen direla, baina, bien bitartean, iritzi publiko orokorrean jatorri etnikoarekiko, hiritartasunarekiko eta kulturantzazunarekiko jarrera intoleranteak gailentzen dira, eta horren erakusle dira EBko hainbat kideren politika kontserbadoreak eta eskuin muturrekoak (Belgikako Vlaams Blok, Italiako Iparraldeko Liga, Austriako FPÖ, Frantziako Fronte Nazionala eta abar). Liberalismo akademikoaren eta, oro har, iritzi publikoaren nolabaiteko "intolerantziaren" arteko bereizketa, arlo honetan, adituen artean dauden gaizki ulertuek eta eztabaida ugariak indartzen dute agian.

Eztabaida akademikoa, Europan, batez ere filosofo politiko iparramerikarrek, Estatu Batuetan edo Britainia Handian ikasi duten edo ikuspuntu iparramerikarra duten adituek zuzendu dute. Horrek ondorio garrantzitsuak izan ditu eztabaida europarrean. Lehenengo, kulturantzazunari buruzko eztabaida akademikoen eta politikoen terminoak Europara ekarri dira asko zaindu gabe. Eztabaida amerikarren aberastasuna eta garrantzia onartzea ondo dago, baina horrek ezin du alboratu eztabaida amerikarrak Europara ekartzeko modu oso eztabaidagarriari buruz zilegizko eragozpenak adieraztea. Oinarritzko arazoa zera da: aurrekari historikoei, sozialei eta ekonomikoei dagokienez, Europan eta Estatu Batuen arteko ezberdintasunak ez direla kontuan hartu. Behintzat, kontuz ibili behar zen testuinguru batetik bestera kontzeptuak eta eztabaidak pasatzerakoan. Integrazioari eta aniztasunari dagokienez, arlo horietako gai nagusietako batzuk Atlantikoaren bi aldeetan antzekoak diren arren, oso arriskutsua dirudi bi egoeretan analisi-eskema bera ezartzeak, are gehiago, Europako Batasunean Iparramerikarako diseinatutako irtenbide arautzaileak eta politikoak hartzea.

Bigarrenez, bai diskurtso akademikoan bai politikoan, kulturantzazunari eta aniztasunari lotutako gaiak eta desberdintasun sozialari eta ekonomikoari lotutako gaiak ez dute elkarren arteko harremanik. 90eko hamarkadaren erdialdetik eta, bereziki, irailaren 11z geroztik, gizarte globalaren ikuspegi etniko-kulturala ezagunago bilakatu da. Nolabait, kulturantzazun kolektiboaren aldekoak eta kontrakoak kulturalista bihurtu dira eta, neurri batean, zibilizazioen arteko talkaren argudioa bere egin dute. Horregatik, bai eztabaida akademikoetan, bai eztabaida politikoetan, aniztasun etniko-kulturala eta desberdintasun sozio-ekonomikoa ez dira asko zaintzen. Ikuspegi "anglo-amerikar-erdialdekoak" Europako integrazioan eta aniztasunean gailentzearen beste ondorio bat da hori.

Hirugarrenez, kulturantzazunari eta hiritartasunari buruzko eztabaida europarrak oso arau-emaileak izan ohi dira; argitaratutako materien artean, ezinegon arautzaileak eta azaldu ezin direnak ezberdintzea ere oso zaila izan daiteke: batzuetan, "izan behar lukeena"ri buruzko galdera erantzuteko ardu-

rak egoeraren analisi soiltzat azaltzen dira, eta alderantziz. Baina ez dago gaizki integrazioa eta aniztasuna modu arautzailean lantzea. Dударik gabe, pentsamendu arau-emailea beharrezkoa da. Baina eraikuntza arau-emaileak, alderdi arautzaileen adibide gisa garapen soziologikoak bakarrik erabiltzen dituztenean, dinamika sozialen ezagutza enpiriko sakon batean oinarrituta ez daudenean, erraz bihurtzen dira eredu abstraktu, eta beren erabilera eta egokitzapena erakutsi behar dute.

Europako Batasunaren barruan, hiritartasunari, integrazioari eta kulturantzatasunari buruzko diskurtso nazional asko dago. Frantzia, integrazio nazionalaren eta hiritartasunaren kontzeptu errepublikarrak kulturantzatasuna publikoki onartzeak sortzen dituen zatiketak azpimarratzen ditu. Kulturantzatasuna tribalismo berri gisa aurkezten da, Frantziaren balkanizazio gisa eta, azkenik, hiritartentzako arrisku gisa. Britainia Handian, gauzak ezberdinak dira. Kulturantzatasunari buruzko ikuspuntu artean, gatazkak daude, baina eztabaidatu egiten dira. Aniztasuna alor publikora egokitzea ez da horren korapilatsua. Alemanian, "multikulti" izeneko joera eta hiritartasunaren kontzeptu eksklusiboagoa daude aldi berean, nahiz eta Alemaniako hiritarren liberalizazio-mugimendua egon. Arrazoi politiko-engatik eta historikoengatik, herrialde bakoitzak aniztasuna eta batasuna jorratzeko bere moduak ditu eta bere subiranotasuna mantendu nahi du gai horietan. Horrek azaltzen du zergatik dauden horren erakunde europar supranazional gutxi alor horretan. Gainera, Europako Batasuneko estatu kide askotan, kulturantzatasunarekin zerikusia duten gaiak gutxiengo etniko etorkinen egoerari buruzko eztabaidari gainjartzen zaizkio. Ez da gizarte-gai zabaltzat jotzen. Ikuspegi hori Europako Batasunean hiritarren garapen kulturantzatun bat sortzen uzteko itxiegia da. Integrazioa eta aniztasuna nola uztartu guztiak kezkatzen ditu, hiritarrei eta egoiliarrei, ez etorkinei bakarrik.

Sarritan "eredu"tzat jotzen den hiritartasunari eta kulturantzatasunari buruzko diskurtso nazionaletatik haratago, tokiko politikak oso antzekoak izaten dira batzuetan, baita hiri frantsesen eta britainiarren artean ere, eta gutxiengo etniko etorkinek gizartean duten lekuarekiko, antzeko emaitzak lortzen dituzte. Hau da, ikuspegi kulturantzatuna duten herrialdeetan politika asimilazionistak aurki daitezke, eta alderantziz.

Edozein kasutan ere, Europako Batasuneko identitate etniko-kulturalak eta nazionalak dinamikoki doitzeko beharrak argia dirudi. Europa homogeneoa sustatzeko edozein saiakerak porrot egingo du, Europa aniztasunaren sinonimoa delako. Baina, EBko aniztasuna kudeatuko duen eredu arau-emaile berri bat eraikitzeari eman behar al zaio lehentasuna? Edo europar hiritartasuna azpitik eraikitzeari eta dagoeneko sendotuta dauden arauetan eta Europako Batasuneko legeetan oinarritzen diren integrazioaren eta aniztasunaren alorrean politika egiteko ikuspegi pragmatikoagoari? Txosten honen hurrengo orrialdeetan, azken jarrera horren alde egingo da, eta Europako Batasuneko hiritartasun kulturantzatunaren bost elementu aurkeztuko dira.

4. EUROPAKO BATASUNEKO HIRITARTASUN KULTURANTZUNERANTZ

Hiritarren eta kulturaren aniztasunaren arloan, estatu nazionalek Europako Batasunak baino eskumen gehiago dituzte eta ematen du gai horien inguruan beren subiranotasuna mantendu nahi dutela. Hala ere, Europako erakundeek gero eta interes handiagoa dute hiritartasun- eta integrazio-gaietan, eta 2003ko ekainaren 3ko Immigrazioaren, Integrazioaren eta Enpleguaren Batzordearen Komunikazioa da horren erakusle. Txosten hartan eztabaidatutako gaiak hiltzen ari zaie gobernu-prozesu batean, pixkanaka-pixkanaka, eta hainbat maila hartzen ditu barruan: Europako Batasuna, estatu kideak eta estatu federalen eta hirien osagaiak. EBn, hiritartasun kulturantzun baten eredu monolitikoa goitik ezartzeko edozein saiakerak traba ugari aurkituko lituzke maila lokalean. Horregatik, estrategikoki, egokiagoa da printzipio eta ikuspegi orokor komunak adostea eta estatuen eta agintari lokalen autonomia errespetatzea, subsidiarioritasun-printzipioan agertzen den bezala. Aldi berean, gobernu maila bakoitzean elkarriketa sustatzea eta integrazioaren, aniztasun kulturalaren eta hiritartasunaren alorrean jarrera egokiak trukitzea da, dudarik gabe, EBko hiritartasun kulturantzuna behetik gora eraikitze bide zuzena.

4. 1. Kulturantzuna eta Justizia Soziala

Europako Batasuneko hiritartasun kulturantzunarekin lotuta dauden oinarritzko gaiak dagokienez, bost dimentsio eztabaidatu behar lirateke gutxienez. Lehenengo, identitate etniko-kultural bat sortzeko eta sendotzeko prozesuak eta kanporatze eta ustiapen sozio-ekonomikoen prozesuak sakonki lotuta daude. Beren identitate eta kultura zilegitzat hartzen ez direnak edota European beldurra sortzen dutenak izaten dira lan-merkatutik kanpo geratzen direnak edo bere mailarik baxuenean ustiatzen direnak. Arraza-diskriminazioak, erlijiozko diskriminazioak, etnikoak eta diskriminazio sozio-ekonomikoak bat egin ohi dute, herrialde musulmanetako etorkinen kasuan ikus daitekeen bezala. Horregatik, eskusio edo kanporatze eta ustiapen sozio-ekonomikoen aurka egiteko, identitate etnikoak eta kulturak batera aitortu eta sustatu behar dira. Beste hitzetan esanda, aitortza eta diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako politikak elkarrekin lotuta daude nahiz eta ezberdinak izan. Ez du zentzurik kulturaren aniztasunarekin eta justizia sozialarekin zerikusia duten gaiak bereiztea. Alegia, hiritartasun kulturala babestea, adibidez, gutxiengoentzako eskubide kultural bereziak bideratuz, ez litzateke egokia; ez behintzat gutxiengo horiei ez bazaizkie hiritartasun sozio-ekonomiko osoa, lan-merkatu sartzeko aukera bera, hezkuntza, osasungintza eta etxebizitza bermatzen. Esan daiteke berdintasun sozial eta ekonomiko handiagoak identitate etniko-kultural irekiagoak sortzea dakartzala; desberdintasun eta kanporatze sozial eta ekonomiko handiagoek, berriz, identitate etniko-kultural itxiagoak eta baztertzaleagoak dakartzate eta horiek frustrazioaren konpentsazioa dira. Modu errazago batean azalduta, "balkanizazio" soziala eta ekonomikoa aniztasun kulturala baino arazo handiagoa izan daiteke EBko demokrazia-erentzat.

4.2. Oinarritzko eskubide eta betebeharrak

Bigarrenaz, EBn hiritartasun kulturantzun baterantz joateko, oinarritzkoa da berdintasun osoa izatea eskubideetan eta oinarritzko betebeharratan, EBko legezko egoiliar guztientzat. Duela hamar urte, hiritartasun europarra sortu zenean, hiru hiritartasun maila nagusi aitortu eta legezatu ziren. Europako Batasunean dituzten eskubide zibilen, eskubide sozio-ekonomikoen eta eskubide politikoen arabera, hiru hiritar mota aitortu eta legezatu ziren.

Estatu Kide bateko hiritarrek, hau da, bere naziotasuna duen estatuaren mugen barruan bizi direnek bakarrik dituzte eskubide zibil, sozio-ekonomiko eta politikoak modu osoan, hau da, hiritartasun osoa. Duten eskubideen kopuruari dagokionez, zeharo barneratzen diren bakarrak dira hiritar horiek. Baina talde horretako gero eta gehiago pertsona gehiago baliabide ekonomikoen, sozialen eta politikoen birbanatze-prozesutik kanpo daude.

Maila baxuago batean, Europako Batasuneko Estatu Kide bateko hiritarrak baina beste Estatu Kide batean bizi direnak daude; eskubide politiko jakinak bakarrik dituzte (nagusiki, bozkatzeko eta tokiko eta Europako hauteskundeetan aukeratua izateko eskubidea). Beste alor batzuetan, haien eskubideak ez dira osoak. Adibidez, ez dute Europako Batasuneko beste herrialde batean finkatzeko askatasun osoa. Babes sozial gutxi duen Estatu Kide batetik babes sozial handiagoa duen Estatu Kide batera lanik ez duten pertsonak joan daitezela saihesteko, Hiritar Europarrek bi baldintza bete behar dituzte beste Estatu Kide batean finkatu nahi badute: independentzia ekonomikoa izatea eta gizarte-segurantzari dagokionez ere independentzia izatea. Gainera, bizi den herrialdean zerbitzu zibilak eskuratzeko dituzten aukerak ere mugatuak dira. Azkenik, nahiz eta Hiritar Europar horiek Europako Batasuneko legeek babesten dituzten, ez da lortu berdintasun osoa Europako Batasuneko hiritar nazionalen eta gairontzeko hiritarren artean.

Europako Batasunean bizi diren hiritarren hirugarren maila, bi azpimailatan banatuta dago. "Legezkoak" edo "denizens" deritzenak -hau da, European legea betez finkatuta dauden hirugarren estatu bateko hiritarrak- Europako gizarteko zati dira neurri bateraino, bai gizarte zibileko bai sozio-ekonomikoko zati. Gizaki gisa eta lanerako indar gisa, badituzte eskubide zibil eta sozio-ekonomiko batzuk, baina, oro har, ez dute eskubide politiko handirik Europako Batasunean. Bigarren azpimailak, "legez kanpokoak" edo "margizens" deritzenek, eskubide zibil, sozio-ekonomiko eta politiko oso mugatuak dituzte. Kasu askotan, ia ez dute eskubiderik, estatu kide batean legez kanpoko egoeran bizi direlako. "Denizens"en eta "margizens"en artean, denbora epe jakin baterako langileek edo egoiliarrek osatzen duten maila aipa daiteke; maila hori hazten ari da eta maila horretan dauden batzuek postu onak izan ditzakete; beste batzuek, berriz, bazterketa latza paira dezakete. Edozein modutan ere, "denizens"ak eta "margizens"ak maila berean biltzen dira, "Europartasun" kultural eta politikoaren aldetik kanporatze-mekanismo bera jasaten dutelako.

Aurreko deskribapenak iradoki dezakeena baino konplexuagoa da Europako Batasuneko hiritarren hiruki formako egitura. Europako Batasuna hainbat mailatako demokrazia izatea, kasu honetan ere, oso garrantzitsua da. Adibidez, EBko legeen arabera, hiritar turkiarrek antzeko eskubideak dituzte, baina Frantzia eta Holandan bizi diren turkiarrek eskubide ezberdinak dituzte herrialde horietako legeen arabera. Lehenengo kasuan, turkiarrek ez dute bozkatzeko eskubiderik, eta, bigarren kasuan, 1985etik aurrera galdu zen toki mailan eskubide hori. Ikuspegi europar batetik, EBko demokrazia kulturantzun baten ideiaen aurka doan tratamendu diskriminatzailetzat jo daiteke hori.

Arazo mota horri konponbidea aurkitzea ez da erraza. Egoiliar guztientzako erabateko eskubideberdintasuna lortzeko bidea luzea izango da oraindik. Hala ere, norabide horretan aurrera egiteko, proposa daiteke hiritartasun europarra (egun dagoen bezala) beste herrialdeetakoak diren legezko egoiliar iraunkorrei zabaltzea.

Eskubideei eta betebeharrei dagokienez, egoiliarren arteko berdintasun-printzipioak beste herrialdeetako nazionalak bizi diren hirugarren herrialdeko legeak eta Konstituzioa errespetatu beharra dakar. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Europako Zuzenbidea, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta, etorkizunean, Europako Konstituzioa ere errespetatu beharko dituzte, Europako Batasuneko beste edozein hiritarrek bezala. Agiri horiek hainbat balio islatzen dute (demokrazia, giza eskubideak, diskriminazio eza, generoen arteko berdintasuna, pertsonaren osotasun fisiko-arekiko eta psikologikoarekiko errespetua, aniztasuna eta identitate kulturala errespetatzea); balio horiek ez dira negoziagarriak eta Europako Batasuneko hiritar guztiek partekatu beharko dituzte, identitate etniko-nazionala eta erlijioa kontuan izan gabe.

Lehen aipatutako balio ez negoziagarriekin ados ez daudenek beren desadostasuna azaltzeko eskubidea izango dute adierazpen-askatasunaren mugen barruan. Botereen arteko oreka aldatzeko eta balio alternatiboak sustatzeko, politikoki mobilizatze eskubidea ere izango dute. Baina hori gertatzen den bitartean, legeari eta balioei kasu egin beharko diete.

4.3. Aniztasuna sinbolikoki aitortzea

Kultura eta identitate europarrari buruzko ideia nagusiak kontinente europarraren iraganeko ikuspegi mitifikatu samarrean oinarrituta egoten dira; ondorioz, gutxiengo etniko edo arraza bateko kanpoko hiritar asko, baita EBkoak ere, Europatik kanporatuta sentitzen dira; hau da, ez dira zeharo europarrak sentitzen. Kulturantzaren europarrari buruzko ikuspegi instituzionalek kulturaren, identitate baten eta hiritartasun europar baten eztabaidak eta ideiak sortzen dituzte eta, aldi berean, eztabaida eta ideia horiek osatuak izaten dira. Erakundeek ikuspegi horiek aniztasun kulturalen eta identifikatzaileen maila ezin hobeari buruzko kezka sortzen duten elementutzat jo daitezke, eta hori ez da Europako Batasunean bakarrik onargarria, izan ere, Europako Batasuneko estatu kideen bizikidetzan oinarritutako eredu europarraren muina ere definitzen du.

Badirudi tarte handia dagoela erakundeek kulturantzaren europarrari buruz dituzten ikuspegiak eta kulturantzaren errearen artean, Europa urbanoan sarritan ikus daitezkeen identitatearen eraikitze-prozesuen eta kulturaren eraikitze-prozesuen artean. Zeharo europarrak sentitzen diren norbanakoak eta taldeak ere (beste identitate batzuk ere izan ditzaketelako) eta beren akzio soziala European kokatzen dutenak ez dira hiritar europar "erreal"tzat onartzen, defendatzen duten kultura ez datorrelako bat European iraganean oinarrituta definitzen den funts europarrarekin. Argiago azalduta, kulturantzaren eta identitate-aniztasuna European hazten ari dira; European, kulturantzarenari, identitateari eta kulturari buruzko erakundeek ikuspegiak, berriz, iraganera mugatzen dira, iragan horrek EBko estatu kideen identitatea eta kultura egin dituela ematen duelako. Erakundeek kulturantzaren europarra kulturaren eta identitatearen funtsezko ikuspegi batean oinarritzen da eta horrek hiritartasun europarrera sartzeko aukerak baldintzatzen ditu modu esanguratsuan.

Lehenago ikusi dugun bezala, Europako Batasuna eta Estatu Kide gehienak gero eta multietnikoak, kulturantzarenak eta arraza aniztasunak dira. Estatu Kideetan bizi diren gutxiengoak eta kolonizazioaren, lan-migrazioen eta beste giza mugikortasun ereduak ondorio direnak erronka dira neurri batean, etnikoki, arraza aldetik eta kulturalki homogeneoa den Europa batentzat; izan ere, bidezkoak izanez gero, Europako Batasunak nolako izan behar lukeen zehazten duen ikuspegi bakarra ez dagoelako. Hirietako European, segregazioa eta etnien bazterketa errealitatea dira lan-merkatuan, hezkuntza-sisteman, etxebizitzan eta abar. Hori praktika kulturantzaren indargabetzen dute. Hirietako gazte europarrak jarrera kulturantzaren "moderatu" erakutsi ohi dute. Munduari irekia daude, aniztasunari, nahasketari, eta identitate kosmopolitek erakarriak sentitzen dira. Antzinako identitateak zaharkituta daude haietaz. Nahiago dute dimentsio anitzeko identitateak eta askotariko kidetasunak zabaltea. Batzuetan, ordea, bizitza sozialean eta politikoa, identitate etniko-nazional zorrotzak eta eskusiboak ezartzen dira. Haiderrek, Le Penek eta Vlaams Blokak ere gazteen talde baten babesa dute. Sinpleegia litzateke gaztedi europarra bi taldetan banatea: talde kosmopolita eta talde nazionalista eta arrazista. Hala ere, argi dago hezkuntza, kultura eta gizarte-iturri egokiak izateak identitate kosmopolita onartzea ekartzen duela; dislokazio sozialak, hezkuntza eskas batek eta bazterketa ekonomikoak, berriz, ideologia nagusien gainbeherari lotuta (adibidez, komunismoaren gainbehera), kasu batzuetan eta neurri bateraino azaltzen dute hirietako gaztediaren zenbait sektoreren artean identitate etniko-nazional murriztaileak sortzea. Baina, edozein kasutan ere, batasun sozial eta politikoa kulturantzarenarekin eta identitateekin uztartzearen arazoak konpondu gabe jarraitzen du European.

EBko alderdi anitzeko aniztasuna sinbolikoki aitortzea pauso bat da norabide horretan. Beraz, Europa kulturantzaren baten testuinguruaren barruan, Europako Konstituzio berrian balio kristauak balio europarren nukleo zentral gisa aipatzea kontraesanduna eta diskriminatzailea litzateke. Identitate europarraren erlijiozko ondarea, historikoki, ezin da ukatu; baina kristauak ez direnak, ateoak, musulmanak, hinduak edo sikhak izan, European garapenean ere lagundu dute eta etorkizunean ere halaxe egingo dute. Horregatik, hiritarrei beren erlijiozko identitatea edo identitate filosofikoa kanporatzen duen Konstituzio bat onartzeko eskatzeak banaketa suspertuko luke batasuna lortu beharrean.

EBko alderdi anitzeko aniztasuna sinbolikoki onartzea kontu garrantzitsua da, baina talde etnikoen artean mugak eraiki gabe, talde horietako kideek kultura eta identitate ezberdinak eta komunak partekatzen dituztela kontuan hartuta. Galdera horren erantzuna lehenago aipatutako ideietan aurkitu beharko da. Aniztasunaz hitz egitea barneratzearen eta berdintasun sozial eta ekonomikoaren bilaketarekin ordezkatzeko bada, oposizioa sustatzeko eta gatazka etnikoa izateko arriskua dago. Aniztasuna sinbolikoki aitortzea eta kanporatze soziala eta ekonomikoa areagotzen duten esfortzuak aldi berean gertatzen badira, aniztasuna sinbolikoki aitortzearen ondorio banatzailea gutxitu egingo da.

4.4. Integrazioa, aniztasuna eta Politika Publikoak

EBko estatu eta nazioz gaindiko erakundeek parte hartu behar lukete aniztasun kulturala eta integrazio-gaiak kudeatzean? Europako Batasunean asko eztabaidatzen ari den gaia da hori. Alde batetik, merkatu libreari zuzenduta dagoen ikuspuntutik aztertuta, batzuek estatuak atzera egitearen eta EBk integrazioaren eta aniztasun kulturalaren alorrean parte ez hartzearen alde egiten dute. Haien ikuspuntutik, denboraren igarotzeari, merkatuari eta horien aitortza eskatzen duten gutxiengoaren auto-organizazioari utzi behar litzazkieke gai horiek. Bestalde, beste batzuek, ikuspegi interbentzionista batetik, gai kulturalen eta aniztasunaren inguruan estatuak eta EBko erakundeek parte-hartze aktiboa izatea babes-ten dute, horretarako interbentzio politikoak eginez.

Badirudi azken jarrera hori European eraikuntza nazionalean ageri diren esperientziekin eta integrazio europarraren prozesuarekin bat datorrela. Jakina, estatuen eta EBko erakundeen interbentzioa edo esku-hartzea kontu handiarekin eztabaidatu behar litzateke. Puntu horretan, beste behin ere, subsidiariorotasun-printzipioa erabilgarria litzateke estatuaren akzioak eta nazioz gaindiko akzioak uztartzeko eta horiei ahalik eta demokrazia kulturantzuna europarraren onurarako etekin handiena ateratzeko.

Gainera, demokrazia eta hiritartasun kulturantzuna indartzeko interbentzio publikoaren printzipioa onartu ondoren, bai estatuen aldetik, bai erakunde europarren aldetik edo bien aldetik, beste galdera asko sortzen dira, eta galdera horiek erantzuteko araudi abstraktua eta politika-diseinu jakinak behar dira: Zein motatako politika publiko sortu behar litzateke aniztasunaren errespetua eta kanporatzea eta desberdintasun soziala eta ekonomikoa uztartzeko? Gutxiengoaren taldeak onartu behar al lirateke legalki? Zenbait eskubide berezi eman behar al zaizkie talde batzuei? Eta zein eskubide? Zein motatako integrazio-politikak inplementatu behar lirateke? Europako gizarte kulturantzunetan nola lortzen da hiritartasuna?

Berriz ere, ez dago politika sinple eta globalik galdera horiei erantzuteko. Tentagarria litzateke beste lurraldeetan garatu diren politika kulturantzunen "eredu" bat hartzea, esate baterako, Kanadan edo Australian ezarritakoak, baina politikak ez dituzte ondo jasaten bidaiak. Integrazioa sustatzen duen testuinguru nazional batera egokitutako politika kulturantzun bat beste marko nazional batean ezartzen bada, aurkako emaitza izan dezake. Beraz, politikak testuinguru soziala eta tokiko politika kontuan hartu behar litzazkete, baita populazioaren ezaugarri soziologikoak eta aniztasun kulturalaren barruan gutxiengoaren taldeen eta gehiengoaren osatzen dituzten taldeen eskaerak ere.

Are gehiago, identitate zurrunka izateko beharrik ez duten talde osoak aitortzearen ordeztasunaren hainbat alderdi aitortzearen aldeko jarrera da nagusi. Hala ere, taldeek talde gisako aitortza behar dute, eta demokrazia kulturantzun batek identitatearen aitortza-aldarrikapenei entzun behar diezaieke. Politikak eta diru-laguntzak ematea aitortzeko modu garrantzitsuak dira, eta lehenago aipatutako balioen muina errespetatzen duten eta beren agenda politikoa sistema demokratikoaren aurka ez dagoen taldeentzat gorde behar dira. Demokrazia suntsitu nahi duten taldeak diruz laguntzera behartzen duen arrazoirik ez dago, baina horrelakorik ere gertatzen da; adibidez, eskuin muturrak diru publiko lortzeko aukera du hainbat herrialdetan. Ildo beretik, beren kideak zapaltzen dituzten taldeek edo norbanakoaren askatasunak errespetatzen ez dituztenek ere ez lukete diru-laguntzarik jaso behar.

Eskubide kolektiboak zehaztea, baita Konstituzioetan talde etnikoak, kulturalak eta erlijiozkoak aitortzea ere, arretaz hartu behar da kontuan irtenbide gisa. Araua baino salbuespena izan behar luke. Konstituzioan talde jakin batzuk aitortzearen lehen arriskua zera da: talde bananduez osatutako gizarte baten irudia sor daitekeela, taldeak osatu ditzaketen gizabanako hiritarrena sortu beharrean. Ildo horretan, zatiketa gehiago bultzatzen du integrazioa eta batasuna baino. Bigarren arriskua zera da: etnien muga zurrinak ezartzea eta Konstituzioak onartzen dituen taldeen arteko gatazka etnikoa instituzionalizatzea. Hirugarren arriskua honako hau da: Konstituzioa oso egonkorra dela kontuan hartuta, horren barruan taldeak aitortzeak zailagoa egiten du European aniztasunaren dibertsifikazio-dinamikak lanerako kontuan hartzea. Belgikako kasuak erakusten du ondoen aniztasuna konstituzioan aitortzeak dituen dilemak; banantzeko joerei erantzuteko pentsatua dago, baina talde nazional belgikarren arteko gatazka sustatu du. Talde jakinek desagertzeko mehatxua sentitzen badute, eta ez badira zeharo babesten, konstituzioan aitortzea izan daiteke irtenbiderako elementua, noski.

Aldaketa konstituzionalez gain, aniztasuna bultzatzeko eta babesteko politika eta araudi malguagoak diseinatu eta inplementa daitezke, eta, bide batez, integrazioa eta batasuna sustatu. Politika kulturantzun guztiak jasoko dituen zerrenda agiri hau baino luzeagoa litzateke. Hala ere, testuinguru europarrean oso egokiak izan daitezkeen politika interbentzionistak badaude.

Hasteko, gizarte jakin batean kulturantzuna hobeto ezagutarazteko ekimenak antolatzen dituzten etorkinen elkarrekin diru-laguntzak ematea, talde kulturalen artean zubiak eraikitzea eta distantziak murriztea, hasiera batean, tresna interesgarria da. EBko herrialde askok denbora asko daramate horrelako ekimen interkultural eta kulturantzuna babesten. Batzordeak ere etorkinen elkarrekin handiei lagundu die horrelako lanak egin ditzaten.

Bigarrenez, arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako legediak eta politikak edozein demokrazia kulturantzunen osagai indartsuak dira, bai nazio barruan, bai EBn. Arrazakeria eta diskriminazioa kontrolatzea (etnikoa, erlijiozkoa, orientazio sexualean oinarritutakoa, generozkoa eta abar) aipatutako legedien eta politiken harira sortutako erakundearen zeregin erabakigarria da. EBn, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Europako Behatokia aipa daiteke. Nazio mailan, Britainia Handiko Arraza Berdintasunaren Komisia (Commission for Racial Equality) eta Belgikako Aukera Berdintasunaren eta Arrazakeriaren Aurkako Zentroa (Centre pour l'Égalité des chances et la lutte contre le racisme) aipa daitezke.

Hirugarrenez, beste gai politiko erabakigarri eta multidimentsionala zera da: hezkuntza publikoa aniztasun kulturalera zabaltzea. Haren alorretako batek hizkuntza irakastearekin du zerikusia. Iraganean, esperimentuak egin dira, Europako Kontseiluaren babesean. Esperimentu horien barruan, haur etorkinei "beren jatorrizko hizkuntza" irakasten zitzaizkien. Programa pilotu horiek asko kritikatu ziren beren izaera murriztailegatik, hala nahi ez izanda ere ikasle etorkinei, neurri batean, beren gurasoen hizkuntza erreferentziatzat erabiltzera behartzen zitzaizkien.

Hizkuntzaren gaira gerturatze egokiagoa honako hau litzateke. Hizkuntza erabakigarria da komunikaziorako eta komunikazioa beharrezkoa da demokrazia kulturantzuna sustatzeko. Pertsona batek gero eta hizkuntza gehiago erabiltzen baditu, hobeto komunikatuko da jendearekin. Beraz, EBko herrialdeetako hizkuntza-politiken oinarritzat eleaniztasunaren printzipioa hartzea da proposamen zehatzetariko bat. Puntu horri jarraituz, logikoa litzateke egoiliar guztiei animatzea bizi diren herrialdeko hizkuntza nazionala hitz egitera (hizkuntza bat baino gehiago duten EBko estatuen kasuan, guxtienez hizkuntza nazional bat). Halaber, arrazoizkoa litzateke egoiliarrak nahi dituzten EBko hizkuntzak ikastera animatzea, baita europarrak ez diren hizkuntzak ere, eta horien artean daude etorkinen herrialdeetako hizkuntzak.

Nabarmendu beharrezkoa da eskola-curriculumetan ez direla sartzen ez kulturantzuna ezta nazio-erakuntzari eta EBren erakuntzari immigrazioak egiten dion ekarpena ere.

EB osorako eskola-curriculum bat egitea ez litzateke onuragarria izango. Hala ere, Europa osorako baliagarriak diren gomendio orokorrak eman daitezke. Horietako bat zera litzateke: Europako emigratioaren eta immigrazioaren historia eta emigratioaren eta immigrazioaren historia nazionala historia-ko ikasturte orokor guztietan sartzea.

Gaur egungo testuinguru politiko orokorrean, erlijio-aniztasunera egokitzea da gori-gorian dagoen gaietako bat. Lehen puntua, bereziki irailaren 11ren ondoren, honako hau da: Europan, erlijio-aniztasunari buruzko eztabaidak eta kulturazintasunari buruzko eztabaida orokorrak, esplizituki edo inplizituki, Islamaren jarreraren eta Islamari jarraitzen dioten musulmanen inguruan biltzen dira. Badirudi hori gertatzea arrazoituta dagoela; izan ere, EBko herrialde askotan Islama bigarren erlijio bilakatu da. Baina erlijio-aniztasunera egokitzea EBko erlijio guztiei eragiten die, baita sinismen ez erlijiosoei ere. Horregatik, eztabaida hori zabaldu beharra dago EBn etorkizunean ager daitezkeen erlijio eta sinismen berrietara ere egokitzeko.

EBko estatu kideek erlijioak lantzeko hainbat modu dute. Estatu batzuetan, teorikoki banaketa nabarmena dago elizen eta estatuaren artean. Beste estatu batzuetan, erlijio batek estatus pribilegiatua du. Azkenik, beste estatu batzuek "konkordatu" erregimen bat sortu dute, eta Eliza Katolikoaren eta estatuaren arteko harremanak zehazten dira Vatikanorekin lortutako akordio baten bidez. Bi ohar egin daitezke. Lehenengo, Amsterdamgo Tratatuak dio EBk estatu kide bakoitzaren erlijiozko legedia errespetatzen duela. Bigarrenez, eta arrazoi historikoengatik, Islama ez da kontuan hartu akordio horietan. Beraz, honako hau da kontua: erlijio guztien eta sinismen ez erlijioso guztien tratamendu bera nola bermatu Europako estatu guztietan. "Erlijioaren zergaren" ikuspegi alemana eztabaidarako jomuga izan liteke erlijio eta sinismen ez erlijioso guztientzat modu zuzen batean diru publikoa nola bildu behar litzatekeen argitzeko.

Hiritartasuna lortzea ere eztabaidarako puntu bat da demokrazia kulturazintzetan. Batzuen ustez, bizi diren herrialdeetako naziotasuna lortzea litzatekeela integrazio-prozesuaren azken pausoa. Beste batzuek aldarrikatzen dute naziotasuna lortzea errazteak gizarteko kide berri horiek onartzeko modu bat dela eta herrialde horrekiko integrazio- eta identifikazio-prozesua sustatuko lukeela. EBko herrialde askotan, oso eztabaida sutua dago horren inguruan. Edozein kasutan ere, arrazoizkoa da egoiliar iraunkorren hiritartasuna lortzea liberalizatzea, eta, horretarako, epe bat zehaztu behar da eta hiritartasun bikoitza ere onartu behar da. Horren arrazoiak zera da, jendeak sarritan identifikazio bikoitz eta askotarikoa sentitzen duela, eta hori errespetatu egin behar da. Esan daiteke migrazio-historia luzea duten etorkin askorentzat beren jatorriko herrialdearen nazionalitatea mantentzea herrialde horrekin lotzen duen gauza bakarra dela eta beren migrazioaren lekuko bakarra. Besteei dagokienez, zeharo integratuta egon ohi dira immigrazio herrialdean. Kasu horietan, hiritartasun bikoitzak errealitate soziologikoa erakutsiko luke argi eta garbi.

Are gehiago, hiritartasun europarra zuzenean eskuragarria ez izatea eta soilik estatu kide batzuen naziotasuna eskuratuta lortzea arazoa da EBko egungo hiritarrek hiritar erreal bilakatzeko helburua lortzeko. Eskaera zuzena egiteko prozesu bat sartzea irudika genezake; prozesu horren bidez hiritartasun europarra lortzeko eskaera zuzen bat egin zitekeen eta hori Europako Parlamentuan, Parlamentu nazionaletan eta Europako Kontseiluan eztabaidatu eta adostuko lukete.

4.5. Parte-hartze eta ordezkartza politikoa

Azkenik, parte-hartzeari eta ordezkartza politikoiari buruzko gaiak ere badute garrantzia edozein demokrazia kulturazintzetan. Parte-hartze politikoiari dagokionez, EBko estatu kide batzuetan, jada, tokiko boto-eskubidea eta aukeratzekoa ezarri dira. Estatu kide batzuek oraindik ez onartu arren, eskubide horiek onartzekoa da joera. Beste behin ere, zera azaldu behar dugu: tokiko boto-eskubideak balio sinbolikoa duela, baina, halaber, egoiliarrei hirien kudeaketan parte hartzeko tresna eskura jartzen diela. Egoiliarrek eta jatorri immigratzailea duten norbanako hiritarrek tokiko politikan parte-hartzea

sustatzeko, zenbait kontsulta mota ere eztabaidatu daitezke. Ildo horretan, dudarik gabe, 1992ko otsailaren 5eko Bizitza Publikoan Atzerritarrek Toki Mailan Parte Hartzeko Europako Kontseiluko Hitzarmena da Europako Batasuneko eta Europako Kontseiluko estatu kideek gutxienez berretsi dezaketena agiria. Orokortuz, hiritarren eta egoiliarren artean elkarriketa eta eztabaida foroak sustatzea EBn demokrazia indartzeko modu interesgarria da.

Ordezkaritzari dagokionez, nabarmena dirudi aukeratutako erakunde politikoek hiritartasunaren soziologia islatu behar luketela. EBko herrialde askotan, emakumeek, talde etnikoek eta etorkinek politikan ordezkaritza txikia izaten jarraitzen dute. Adibidez, Frantzia bezalako immigratzaileen herrialde batean, ia ez dago magrebtar frantsesik Parlamentuan! Gutxiengoek ikasketa politikoak aukeratu ditzaitez, ekimen positiboak eztabaidatu behar dira. Gainera, alderdi politikoek gutxiengo etnikoetako kide gehiago hartu behar lituzkete.

5. ONDORIOA

Laburbilduz, txosten honetan defendatutako demokrazia kulturantzunaren eta hiritartasun europar kulturantzunaren kontzeptua eztabaida pizteko modu bat da eta ez azken proiektu bat. Hiritar aktiboei osatutako hiritartasuna dakar, non guztiek eskubide eta betebeharrak baitituzte, eremu publiko bera, proiektu demokratikoa babesten baitute eta legea eta prozedura legalak eta politikoak errespetatzen baitituzte. Hiritar horiek hainbat identitate izan ditzakete, baita kultura ezberdinak ere, bai alor pribatuan bai publikoan. Haiek aukeratzeko dituzten kulturak eta identitateak ez diote eragiten gizartean, ekonomian edo politikan duen lekuan.

Europako Batasun demokratiko, batu eta integratu bat askotarikoa eta kulturantzuna bakarrik izan daiteke.

Hala ere, hiritartasun europar kulturantzun bat eraikitzeak oztopo askori egin behar dio aurre. Ez dago bide bakar eta sinple bat oztopo horiek guztiak gainditzeko. Txosten honek, gutxienez, nagusiki egin dezakeen ekarpena zera da: EBko hiritartasun kulturantzunaren utopia modu sinesgarrian argudiatzea.

ELKARRIZKETA: MARCO MARTINIELLO EZAGUTZEA*Goizane Motak egina***Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Arlo profesionalean, politikoki kontzientzia duen soziologo sozial gisa definitzen dut neure burua. Baina, tira, ezkondua ere banago eta emazte zoragarria eta zortzi urteko alaba maitagarria ditut. Bereziki, biengatik saiatzen naiz mundu hau hobetzen soziologiaren eta zientzia politikoaren bitartez. Musika herrikoia ere gustuko dut, bereziki jazz, bluesa, abeslari eta kantautore amerikarrak, musika greziarra, Napoliko musika. Eta, amaitzeko, futbola gogoko dut. Sasoi onean mantentzeko, Bruselako veteranoen talde batean jokatzeko jarraitzen dut.

Noiz hasi zinen immigrazio-, etnia- eta politika-gaiak jorratzen? Zergatik?

Liejatik (Belgika) gertu dagoen langile-auzo batean jaio nintzen, baina gurasoak Napolikoak (Italia) dira. Gure aitak Belgikara etorri behar izan zuen. Izan ere, bera bizi zen herrialdean, gerraren ondoren, pobrezia handia zegoen eta lanik bat ere ez. Belgikako ikatz-meategietara lanera etortzea erabaki zuen. Azkenean, harrobietan lan egiten amaitu zuen. Beraz, "bigarren belaunaldiko eta langile-klaseko etorkina" naiz, baina, jada, ezin dut nire burua langile-klasekotzat jo.

Soziologian graduatzeko eman behar nuen hitzaldirako gaia aukeratu behar izan nuen eta, orduan hasi nintzen akademikoki gai horretan interesatzen. Orduan erabaki nuen itzulera-migrazioarekin lan egiten hastea. Hori, 1982an izan zen, orain dela 25 urte.

Esperientzia pertsonal baten ondorioz hartu al zenuen erabaki hori? Motibazio akademikoren edo pertsonalen bereziren bategatik?

Bai. Azalpen bikoitza dago aukeraketa horretarako. Batetik, esan bezala, bigarren belaunaldiko etorkina nintzen ni; unibertsitateko joateko aukera izan nuen eta, denbora guztian, neure buruari galdetzen nion unibertsitatean zergatik zeuden jatorri bereko horren lagun gutxi; zergatik bigarren belaunaldiko etorkin gehienak ez zeuden han.

Bestetik, gure aitak lana uztea izan zen gai horietan nahasteko bigarren arrazoia. Lana uztera behartu zuten, hain zuzen; alde aurreko erretiroa hartu behar izan zuen arrazoi ekonomikoak tarteko. Industria-krisia izan zen garaian gertatu zen hori. Krisialdi horretan, Lieja inguruko lantegi ugari itxi zuten. Eguneroko bizitzari dagokionez, errealitate hark eragin handia izan zuen gure familian. Jendeak bere herrialdea zergatik utzi behar izaten zuen eta, ondoren, zein baldintza sozioekonomikotan bizi behar zuten ulertzen hasi nintzen. Hori, nire ikerketaren hasiera bakarrik izan zen. Hortik aurrera, nire esperientzia pertsonalak ez ziren horren garrantzitsuak izan.

Hala ere, ziur nago immigrazioa eta jatorri etnikoen gaia beharrezko objektibotasunarekin ikertzea lortu nuela. Zientzialari sozial eta politikoa izaten saiatzen naiz, ez kausa jakin bateko militantea.

Zure ustez, gai horietan, ikerketa zenbateraino da garrantzitsua? Ikerketak errealitatea alda dezakeela uste al duzu? Eta gizarte-egiturak?

Hainbat arrazoigatik da oso garrantzitsua gai horien inguruko ikerketa onak egitea. Migrazioa gizartearen egitura-ezaugarri bat da, eta ez da desagertuko. Horregatik da horren garrantzitsua gai hori ulertzea, azaltzea, iragartzen saiatzea, politika publikoak diseinatzea eta abar. Halaber, garrantzitsua da fenomeno horren balizko ondorioak aztertzea, esate baterako, xenofobia, kulturantzatasuna... Elkarren arteko lotura duten gai multzo zabal bat!

Hala ere, aitortu behar dut ikerketa behar duten gai multzoa oso konplexua dela. Ondoren, beste auzi bat dator: ikerketa horren emaitzak nola eman ezagutzera. Ikertzaile profesionalok agente politikoekin, etorkinekin, gaiarekin lotura duten guztiekin eta abarrekin elkarrizketa onak lortzen baditugu, horrek mundua leku hobea egiten laguntzen du oso modu garrantzitsuan; nahiz eta askoren artean, beste ekarpen bat bakarrik izan...!!!

Zera egin dezakegu: ohikoak eta oso zabaldua dauden ikuspegi batzuk desegin; izan ere, ez dira zuzenenak eta sinplistegiak dira. Adibidez, migratzaileak, askotan, terroristatzat edo kriminaltzat aurkezten dira. Jakina, badira batzuk, baina gehienak ez dira horrelakoak. Horregatik, saiatu behar dugu iritzi publikoa hezten eta etorkinen aniztasuna eta konplexutasuna ikusarazten. Gure ikerketetatik lortzen dugun informazio erabilgarria eta objektiboa era egokian transmititzeko moduak aurkitu behar genituzke; hala, saiatu behar genuke iritzi publikoari laguntzen estereotipo bidegabeak eta kaltegarriak eta gai konplexuen ikuspegi sinpleegiak ez egiten.

Zure iritzi, zein dira gizarte modernoak aurre egin beharreko erronkarik garrantzitsuenak?

Nire ustez, ingurumena eta aldaketa klimatikoa da oinarritzko gaietako bat. Gai horrek zerikusia du migrazioarekin, jendearen lekualdatzeen arrazoi nagusienetakoa baita. Benetan merezi du gai horren inguruan lan egitea, batez ere hurrengo belaunaldiengatik. Horrekin ez dut esan nahi bestelako ikerketak gelditu behar direnik, baina, zoritxarrez, ezin dugu etorkizuna segurutzat jo, eta hortaz jabetu behar dugu.

Bestalde, badaude bestelako funtsezko gaiak ere. Adibidez, ura, elikagaiak, hezkuntza, osasuna... lortzeko gizakien arteko desberdintasunak. Desberdintasun gehiegi daude gure munduan, baita herrialde aberatsetan ere. Eta horrek ere migrazioarekin du zerikusia.

Noraino uste duzu lagundu dezaketela etorkinek erronka horiek gainditzen?

Beste edozein pertsona bezala, etorkinek erronka horien biktimak ere izan daitezke, baina lagundu dezakete eta zeregin garrantzitsua ere izan dezakete, oso dinamikoak izaten baitira. Gogoan izan behar genuke etorkina izateak, halaber, oso indartsua izatea dakarrela. Ez da erraza familia, lagunak, ingurunea eta abar uztea eta beste leku batzuetan mugitzen hastea, non batek gutxieneko duintasunarekin bizi ahal izateko zailtasun gehiago izaten dituen.

Baina, halaber, garrantzitsua da azaltzea batzuetan arazoa areagotu dezaketela. Gainontzeko kontsumitzaileak bezalakoak bihurtzeko joera dute etorkinek. Ingurumenari kalte egiten dion bizimodua hartzen dute, etorkinak ez diren beren hirikideek bezala.

Zure ustez, zein politika mota indartu, deuseztatu edo sortu behar lirateke European?

Immigrazioari eta integrazioarako gizarte-politikei buruz, diskurtso akademikoetan inspiratutako ikuspegi mota proaktibo eta ulerkor bat behar litzateke. Baina politikak gizarte maila guztietan (tokikoan, herrialdekoan, nazionalen, Europa osokoan eta maila zabalagoan) erabili behar dira.

Lehen esan dudan bezala, gauzak ikusteko gure erari dagokionez ere, adostasun bat lortu behar genuke; immigrazio-kontinente bat gara, baina, gaur egun, era batera edo bestera, immigrazioa kontrolatu egin behar da; errealistak izan behar dugu. Gure konpromiso humanitarioak errespetatu behar genituzke, bai teoriarik, bai praktikan.

Edozein kasutan ere, eskulanaren migrazioari dagokionez, EBko estatu kideek politika proaktiboagoa izan behar lukete, eta asiloaren gaia eta familia biltzea sakonki ikertu behar lukete. Estatu kideek hainbat ildo orokor zehaztuz gero, politikak gainontzeko mailetan jarri behar lirateke abian: politika nazionala, herrialdeko politika, erkidegokoa eta abar.

Europara migratzeko hainbat bide egon behar lukete zabalik: lana, ikasketak, familia biltzea eta abar. Gaur egun, oso bide gutxi dago zabalik. "Europaren babesa" asko nabarmentzeko joera dugu eta migrazioaren legezko esparruak, berriz, oso gutxi nabarmentzen ditugu. Hala ere, deportazio-politikek egon

behar lukete, hemen egoteko legezko eskubiderik ez duten pertsonak ere egongo bailirateke. Baina EBra migratzeko legezko bideak egonez gero bakarrik lirateke moralki onargarriak deportazio-politikak. Eta egun, ez dago horrelakorik.

Gaur egun, immigrazio-politikak oso murriztaileak dira. Ondorioz, migrazio irregularrak sortzen dira eta hori ez da ona ez migratzaileentzat, ezta Europako demokraziarentzat ere.

Eta testuinguru europar horretan, baina Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako errealitate sozio-politikoak begiratu, nola egin behar litzaioke edo egin dakioken aurre immigrazioaren fenomenoari?

Nire ustez, kultura anitzeko estatuetan lan egiten ikasi behar genuke. Hala ere, esan beharra daukat identitate azpinazional indartsuak dauden kasuetan immigrazioak asko zailtzen duela aniztasuna maneiatzea.

Belgikan, adibidez, eskari politikoak ezberdinak dira Walonian eta Flandesen. Talde migratzaileetatik, gehiago espero da waloier edo flandestar egitea, belgikarra baino. Neurri batean, flandestar-waloier gatazkan, etorkinek baten edo bestearen alde egin behar dute nahitaez; modu batera edo bestera, horretara behartuak daude. Baliteke gauza bera gertatzea Euskal Herrian eta Herrialde Katalanetan. Dena dela, aitortu beharra daukat ez dela oso erraza aholku politikoak ematea herrialdea zehatz-mehatz ezagutu gabe.

Bestalde, etorkinek bizi diren herrialdeko nortasuna aldatzen laguntzen dute. Hala, herrialde horiek ezin badute beren iragana ahaztu, etorkinei lagundu behar liekete herrialde horretako garapenean parte hartzen ere. Beti egon behar du aniztasunerako lekua. Euskal Herriarentzat aurreikusten dena elkarrekin diseinatzea da kontua. Eta, hor ere, immigranteek parte hartzeko betebeharra izan behar lukete.

Helburu bati jarraitzea garrantzitsua iruditzen zait. Prozesuaren amaieran, etorkinek bizi diren gizarte-ko eskubide eta betebeharrak izatea litzateke helburu hori.

Oro har, mende honen amaieran dugun mundu "globalizatuaren" egungo joerarekiko baikorra al zara? Zergatik?

Beno, ni berez naiz baikorra; baikorra izaten saiatzen naizela esango nuke... Baina, egia esan, gizakia- ren historian, bidegurutze baten aurrean gaude. Ez dago inozoa izateko arrazoirik. Aurrera egiten saiatzeko, erabil daitezkeen energia guztia behar dugu. Hala ere, nire izaera alde batera utzita, argitu beharra daukat gaur egun ez dela erraza baikorra izatea.

Baina gurasoengandik ikasi nuen katastrofistak ere ez dugula izan behar. Zenbait unetan ez zuten etorkizunik ikusten, baina erronka handiak lortzeko borrokatu zuten, eta gainditu egin zituzten.

Beraz, baikorrak izan behar genuke. Gizakia bizi garen planetarekin adiskidetzeko, esfortzu eta determinazio iraunkorrak behar ditugu.

